



Nerea Bruño Artazcoz andereak, 29138979A agiria duenak eta Nafarroako Bertsozale Elkarteko (IFK: G 31264153; Baratzeetako Zeharkalea 2, behea. 31014 Iruñea-Nafarroa) lehendakaria izateak ematen dizkion eskumenez baliaturik,

ADIERAZTEN DU

- Nafarroako Bertsozale Elkarteko estatutuen 11. artikulua zehazten duela “honako organo hauek arduratuko direla Elkartea gobernatu eta administratzea”:
 - a) Bazkideen Batzar Nagusia, organo gorena izanen dena.
 - b) Zuzendaritza Batzordea, zuzendaritzako organo iraunkorra izanen dena.
 - c) Elkarteko lehendakaria.

- Nafarroako Bertsozale Elkarteko estatutuen 12. artikulua honako hau zehazten duela:

“Batzar Nagusia bazkide guztiek osatzen dute, haien nahia adierazteko organoa da eta gehiengoaz edo barne demokrazia hartzen ditu erabakiak”

- Nafarroako Bertsozale Elkarteko estatutuen 17.artikuluko 3.puntuak honako hau agintzen duela:

“Zuzendaritza Batzordea honako hauek osatuko dute zehazki:

- Lehendakaria.
- Idazkaria.
- Lehendakariordea.
- Diruzaina.
- 4 kide.”

Eta hau horrela ager dadin eta dagokion eragina izan dezan izenpetzen du Iruñean, bi mila eta hogeita lauko ekainaren 27ean.